

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, elkarlaneko lehiakortasunerako eta berrikuntzarako Elkarlanean dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones para la competitividad e innovación colaborativa Elkarlanean para el año para el año 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea elkarlaneko lehiakortasunerako eta berrikuntzarako Elkarlanean dirulaguntza-programa arautzea da 2023 urterako, eta horren helburua da enpresen arteko lankidetzaz sortutako proiektuak sustatzea, baldin eta proiektuok dudarik gabe izaera berritzailea

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto regular el programa de subvenciones para la competitividad e innovación colaborativa Elkarlanean para el año 2023 cuya finalidad es el impulso de proyectos nacidos de la colaboración interempresarial con un carácter innovador inequívoco que impulse





badute eta aukera ematen badute Bizkaiko enpresak hazteko eta haien lehiakortasuna areagotzeko enpresa-jardueraren edozein arlotan.

Zehatzago, programa honetan, hazkunderako estrategia gisa lankidetzan sortutako berrikuntzarako proiektuak egitea sustatu nahi da, eta enpresen artean modu kooperatiboan identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta legala aztertzen lagundu nahi da.

Berrikuntzarako lankidetzak enpresa txikien lehiakortasuna hobetzeko oinarritzko estrategietako bat bilakatzen hasi da, berez haiek dituzten neurrien eta boterearen mugak gainditzea eta banakako ikuspegi hutsetik ezinezkoak liratekeen negozio-aukera berrietara iristea ahalbidetzen dietelako. Hala eta guztiz ere, agerikoak dira erakundeek baterako negozio-aukerak zein konfiantzan oinarritutako harremanak eraiki ahal izateko aukerak identifikatzeko dituzten benetako zailtasunak. Elkarlanean programak oztopo horiek gainditzeko eta lankidetzako negozio- eta berrikuntza-aukeren aprobetxamendua gauzatzen lagunduko duen tresna izan nahi du.

Laguntza-plan honek bat egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planaren barruan ezarritako RIS3 espezializazio adimentsuko estrategian jasotako lehentasunekin, eta arreta berezia jartzen du industria adimentsuan, Euskadiko Industria 4.0. estrategian azaldutakoaren bidean.

el crecimiento de las empresas de Bizkaia y su competitividad en cualquier ámbito de la actividad empresarial.

En concreto, este programa acoge el desarrollo de proyectos de innovación en colaboración como estrategia de crecimiento, así como el análisis de la viabilidad técnica, económica y legal de aquellas oportunidades de negocio identificadas de manera cooperativa entre empresas.

La colaboración para la innovación se está convirtiendo en una de las estrategias básicas para mejorar la competitividad de las empresas pequeñas ya que les permite superar las limitaciones de su tamaño y poder acceder a nuevas oportunidades de negocio impensables desde una óptica meramente individual. Sin embargo, son notorias las dificultades reales que tienen las organizaciones tanto para identificar oportunidades de negocio conjuntas, como las que surgen para ir construyendo relaciones basadas en la confianza. El programa Elkarlanean quiere ser una herramienta que ayude a superar esos obstáculos y hacer realidad el aprovechamiento de las oportunidades de negocio y de innovación en cooperación.

Este plan de ayudas se alinea con las prioridades establecidas en la estrategia de especialización inteligente RIS3 establecida en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030, con especial incidencia en la industria inteligente en línea con lo descrito en estrategia vasca de Industria 4.0.





Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du berrikuntzarako lankidetzaren (Elkarlanean) laguntzeko, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen diren horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorriz.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio ondoren aipatzen den arloko jarduna: enpresen lehiakortasuna hobetzea, bereziki enpresa txikiak, berrikuntza ardatz nagusitzat hartuta; industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé una línea de subvenciones con destino al apoyo a la colaboración para innovar (Elkarlanean) y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora.

II

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas empresas, teniendo como eje fundamental la





lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jarduera esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea].

innovación, el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, impulsar el proceso de internacionalización de las pymes y el apoyo a la actividad exportadora, y la promoción de la cooperación empresarial.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezotasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.
6. Informe de legalidad.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de





dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, hurrengo erregelamendua dela bide: 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua,

género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la "Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia" aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de





Batzordearena, zeinak zehazten baitu de minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

V

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Diru-laguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetakoa gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onetsi ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-

diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis y del Reglamento (UE) n.º 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020, por el que se modifica el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 en lo que respecta a su prórroga.

V

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada





dekretuaren proiektu hau proposatzea.

foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko urtarrilaren 24ko bileran aztertu ondoren, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de promoción económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 24 de enero de 2023

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

2023 urterako elkarlaneko lehiakortasunerako eta berrikuntzarako Elkarlanean dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones para la competitividad e innovación colaborativa Elkarlanean para el año 2023 cuyo texto se incluye a continuación.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

Disposición adicional única. *Protección de datos de carácter personal.*

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de





duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko ("ahaztua izateko eskubidea"), aurkartzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebotatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru

protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión ("derecho al olvido"), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la





Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Xedapen iragankor bakarra. *Aurreko urteko Elkarlanean programa aplikatzea.*

Disposición transitoria única *Aplicación del Programa Elkarlanean del año anterior.*

2022eko elkarlaneko lehiakortasunerako eta berrikuntzarako Elkarlanean dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onetsi zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 1eko 20/2022 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsioak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 20/2022, de 1 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones para la competitividad e innovación colaborativa Elkarlanean 2022 serán resueltos conforme a lo establecido en dicho decreto foral.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Aurreko urteko Elkarlanean dirulaguntza-programa indargabetzea.*

Disposición derogatoria única. *Derogación del programa de subvenciones Elkarlanean del año anterior.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da martxoaren 1eko 20/2022 Foru Dekretua; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

A la entrada en vigor del presente decreto foral, queda derogado el Decreto Foral 20/2022, de 1 de marzo, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*





1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 24an

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua/La diputada foral de Promoción Económica.
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia /El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Dado en Bilbao, a 24 de enero de 2023





ELKARLANEKO LEHIAKORTASUNERAKO
ETA BERRIKUNTZARAKO ELKARLANEAN
DIRULAGUNTZA-PROGRAMA ARAUTZEN
DUTEN OINARRIAK ETA DEIALDIA 2023
URTERAKO

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES PARA LA
COMPETITIVIDAD E INNOVACIÓN
COLABORATIVA ELKARLANEAN PARA
EL AÑO 2023.

Aurkibidea:

Índice:

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

TÍTULO I **Disposiciones generales**

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

2. oinarria. *Definizioak*

Base 2. *Definiciones*

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen
gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko
indibidualizatua.*

Base 6 *Cuantía individualizada de las ayudas.*

7. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 7. *Dotación presupuestaria.*

II. TITULUA **Araubide juridikoa**

TÍTULO II **Régimen jurídico**

8. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Base 8. *Régimen jurídico.*

9. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde
laguntzailea.*

Base 9. *Órganos competentes y entidad
colaboradora.*

10. oinarria. *Arau-haustea eta zehapenak.*

Base 10. *Infracciones y sanciones.*

11. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza
itzultzea.*

Base 11. *Incumplimiento y reintegro.*

12. oinarria. *Dirulaguntza erakunde
onuradunaren ekimenez itzultzea.*

Base 12. *Devolución de la subvención a
iniciativa de la entidad beneficiaria.*





III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

13. oinarria. *Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.*

14. oinarria. *Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.*

15. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

16. oinarria *Dirulaguntza emateko prozedura.*

17. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

18. oinarria. *Ebazpena.*

19. oinarria. *Errekurtsoak.*

20. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

21. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

22. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

23. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

24. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

25. oinarria. *Gauzatzeko epea.*

26. oinarria. *Justifikazio-epea.*

27. oinarria. *Azpikонтратazioaren baldintzak.*

TÍTULO III Procedimiento de concesión

Base 13. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.*

Base 14. *Documentación necesaria para la solicitud.*

Base 15. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Base 16. *Procedimiento de concesión.*

Base 17. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

Base 18. *Resolución.*

Base 19. *Recursos.*

Base 20. *Renuncia a la subvención.*

Base 21. *Modificación de la resolución de concesión.*

Base 22. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Base 23. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Base 24. *Notificación electrónica.*

TÍTULO IV Ejecución, justificación y control

Base 25. *Plazo de ejecución.*

Base 26. *Plazo de justificación.*

Base 27. *Condiciones de subcontratación.*





28. oinarria. *Dirulaguntzak justifikatzea.*

Base 28. *Justificación de las subvenciones.*

29. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

Base 29. *Pago de la subvención.*

30. oinarria. *Laguntzak metatzea.*

Base 30. *Acumulación de ayudas.*

31. oinarria *Laguntzen bateragarritasuna.*

Base 31 *Compatibilidad de las ayudas.*

32. oinarria. *Pertsona onuradunen beste betebeharrak batzuk.*

Base 32. *Otras obligaciones de las personas beneficiarias.*

I. TITULUA

TÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

Mediante este programa de subvenciones se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:

a) Bizkaiko enpresen artean lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuen garapena sustatzea, arrisku partekatuan.

a) fomentar el desarrollo de proyectos de innovación en colaboración, a riesgo compartido, entre empresas de Bizkaia.

b) Bizkaiko enpresa batzuen artean modu kooperatiboan identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta legalari buruzko azterlanak egitea laguntzea.

b) impulsar la realización de estudios sobre la viabilidad técnica, económica y legal de oportunidades de negocio innovadoras identificadas de manera cooperativa entre varias empresas de Bizkaia.

2. oinarria. *Definizioak.*

Base 2. *Definiciones.*

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

a) «Berrikuntza enpresan»: Enpresa-

a) «Innovación en la empresa»: Una





berrikuntza produktu, zerbitzu edo negozio-prozesu berri edo hobetu bat da (edo bien arteko konbinazioa), enpresaren aurretiko produktuetatik edo negozio-prozesuetatik nabarmen desberdina dena eta merkatuan sartu edo enpresan ezarri dena.

Berrikuntza teknologikoa edo beste arlo batekoa izan daiteke. Enpresak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuetan zein prozesuetako edozeinetan egin daiteke (produkzioa, hornikuntza, merkataritza, banaketa, pertsonen kudeaketa, laguntza-prozesuak, negozioaren garapena...).

Berrikuntzaren arloan hemen adierazi ez denari dagokionez, 2018ko Osloko Eskuliburuan (Berrikuntzari buruzko datuak bildu, igorri eta erabiltzeko gidak, 4. edizioa, ELGA) jasotako definizioak hartuko dira kontuan.

b) «Berrikuntza-proiektua»: Berrikuntza-jardueren multzoa, hau da, enpresak egiten dituen finantza-, garapen- eta merkaturatze-jarduerak, enpresarentzat berrikuntza bat lortzeko helburua dutenak, eta, hain zuzen ere, hura amaitzen dutenak edo hura amaitzera asko hurbiltzen direnak. Berrikuntza-proiektua amaitzen dela ulertuko da produktu/zerbitzu edo negozio-prozesu berria edo hobetua merkatuan sartu denean edo enpresan ezarri denean.

Berrikuntza teknologikoaren kasuan, berrikuntza-proiektuek sartutako edo sartzeko bidean dagoen teknologia merkatuan utzi beharko dute epe laburrean, edo, gutxienez, TRL 7 heldutasun

innovación empresarial es un nuevo o mejorado producto/servicio o proceso de negocio (o una combinación de ambos) que difiere significativamente de los productos o procesos de negocio previos de la empresa y que ha sido introducido en el mercado o implementado en la empresa.

La innovación podrá ser tecnológica o de otra índole. Podrá reflejarse tanto en los productos y servicios de la empresa como en cualquiera de los procesos (producción, aprovisionamiento, comercial, distribución, gestión de personas, procesos de apoyo, desarrollo de negocio...).

En lo aquí no reflejado relativo a la innovación, se estará a las definiciones recogidas Manual de Oslo 2018, Guías para la recogida, reporte y utilización de datos sobre innovación, 4ª edición, editado por la OCDE.

b) «Proyecto de innovación»: Conjunto de actividades de innovación, entendiendo como tales aquellas actividades financieras, de desarrollo y de comercialización, llevadas a cabo por la empresa, que tienen por objetivo resultar en una innovación para la empresa y, de hecho, la culminan o se aproximan mucho a su culminación. Se entenderá que el proyecto de innovación la culmina cuando el nuevo o mejorado producto/servicio o proceso de negocio ha sido introducido en el mercado o implantado en la empresa.

En el caso de innovación tecnológica, los proyectos de innovación deberán dejar la tecnología introducida o en vías de introducción en mercado a corto plazo o, al menos, haber alcanzado un nivel de





teknologikoko maila lortu beharko dute, Europako Batzordearen C (2014) 4995 Erabakiaren G Eranskin Orokorrean jasotako eskalaren arabera.

Ez da berrikuntza-proiektutzat jotzen «Funtsezko ikerketa» edo «Industria-ikerketa» egiteko jarduerak bakarrik kontuan hartzen dituenak, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz (2014-06-26ko AO, L 187), zenbait laguntza-kategoria barruko merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Erregelamenduan jasotako definizioarekin bat etorrita.

Ez da berrikuntza-proiektutzat hartuko enpresaren aurreko produktu/zerbitzuekiko edo prozesuekiko alde esanguratsurik ez dakarten etengabeko hobekuntzako jarduerak jasotzen dituenak.

c) «Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektua»: erakunde batzuek batera parte hartzen dute negozio-aukera berritzaile bat garatzen eta/edo prototipatzen; aukera hori aplikatzen laguntzen dute, eta arriskuak zein emaitzak partekatzen dituzte.

d) «Partzuergoa»: lankidetzak-formula honetan, erakunde bik edo gehiagok beren ezagutzak, gaitasunak eta/edo baliabideak partekatzen dituzte jardura bateratu bat egiteko (negozio-aukera bat, berrikuntza-proiektu bat,...); arriskuak partekatzen dituzten arren, bazkide bakoitzak bere independentzia juridikoari eusten dio.

madurez teknológica TRL 7, conforme a la escala de recogida en el Anexo General G de la Decisión de la Comisión Europea C (2014) 4995.

No se considera proyecto de innovación aquel que incluya únicamente actividades de “Investigación fundamental” o “Investigación industrial” de acuerdo a la definición recogida en el Reglamento (UE) 651/2014, de la Comisión, de 17 de junio de 2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DO, L 187, de 26-06-2014) (en adelante Reglamento (UE) 651/2014).

No se considera proyecto de innovación aquel que contemple actividades de mejora continua que no conlleven una diferencia significativa respecto a los productos/servicios o procesos previos de la empresa.

c) «Proyecto de innovación en colaboración»: aquel en el que varias entidades participan en el desarrollo y/o prototipado de la oportunidad de negocio innovadora, contribuyendo en su aplicación y compartiendo riesgos y resultados.

d) «Consortio»: fórmula de colaboración en la que dos o más entidades comparten parte de sus conocimientos, capacidades y/o recursos para el desarrollo de una actividad conjunta (análisis de una oportunidad de negocio, proyecto de innovación...) en la que asumen riesgos de manera compartida pero donde cada socio mantiene su independencia jurídica.





e) «Asmo-akordioa»: erakundetan nahikoa ordezkaritza-ahalordea duten pertsonen sinatutako dokumentu formal bat da; dokumentuan, egin beharreko ekintzez gainera, partzuergoaren alderdi bakoitzak hartutako konpromisoak jasotzen dira. Dokumentuak aukera emango die negozio-aukera identifikatu baten bideragarritasuna aztertzeko eta etorkizunean proiektu berritzaile bateratu bat egiteko baldintzak zehazteko.

f) «Lankidetzak-akordioa»: erakundeetan nahikoa ordezkaritza-ahalordea duten pertsonen sinatutako dokumentu formal bat da; dokumentuan, lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektua egitearen ondoriozko erantzukizunen eta jardueren banaketa eta kostu zein sarreraren banaketaren aurreikuspena ezartzen dira.

Inoiz ez dira lankidetzak proiektutzat hartuko enpresen arteko bezero-hornitzaile harremanak.

g) «Erakunde liderra»: Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektua garatzen duen partzuergoaren edo modu kooperatiboan identifikatutako negozio-aukera berritzaileen bideragarritasunari buruzko azterlanaren buru den enpresa.

3.1 eta 3.2 oinarrietan xedatutako entitate onuradunaren baldintzak betetzen dituen erakundea izango beharko du. Aurkeztutako eskaeraren arabera erakunde liderra proiektuaren jardueren portzentajerik handiena egiten duen eta gasturik handiena daukan erakundea izan behar da elkartearen barruan.

e) «Acuerdo de intenciones»: documento formal, suscrito por personas con poder de representación suficiente de cada una de las entidades, en el que queden recogidos los objetivos, las acciones que se llevarán a cabo, así como los compromisos que adquiere cada parte del Consorcio para explorar la viabilidad de la oportunidad de negocio identificada y que les posibilite concretar las condiciones para desarrollar a futuro un proyecto innovador en común.

f) «Acuerdo de colaboración»: documento formal, suscrito por personas con poder de representación suficiente de cada una de las entidades, en el que queden establecidos la distribución de responsabilidades y actividades y la previsión de reparto de costes e ingresos en el desarrollo del proyecto de innovación en colaboración.

No se considerará en ningún caso como colaboración las relaciones tipo cliente-proveedor.

g) «Entidad líder»: Empresa que lidera el consorcio que desarrolla el proyecto de innovación en colaboración o el estudio sobre la viabilidad de oportunidades de negocio innovadoras identificadas de manera cooperativa.

Deberá ser una entidad que cumple los requisitos de entidad beneficiaria del presente decreto foral conforme a lo establecido en las bases 3.1 y 3.2. Será la entidad de la agrupación que incurra en un mayor gasto, de acuerdo con lo recogido en la solicitud presentada.





Eskabidea aurkezteko eta dirulaguntza osoa justifikatzeko agiriak aurkezteko arduraduna izango da erakunde liderra, eta parte hartzen duten erakundeetako bakoitzaren agiriak jaso beharko ditu. Gainera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren komunikazio guztiak hartuko ditu eta haren ardura izango da informazio hori partzuergoko gainerako erakundeei helaraztea. Beraz, erakunde liderra laguntzarako solaskide bakarra izango da.

La entidad líder será responsable de la presentación de la solicitud y de la presentación de la documentación para la justificación de la totalidad de la subvención, reuniendo la documentación de cada una de las entidades participantes. Asimismo, será la receptora de las comunicaciones del Departamento de Promoción Económica y la responsable de trasladar dicha información al resto de entidades del Consorcio. Por tanto, la entidad líder será la interlocutora única a efectos de la ayuda.

h) «Erakunde parte-hartzailea»: Lankidetzapartzuergoan parte hartzen duen beste edozein erakunde.

h) «Entidad participante»: Cualquier otra entidad que forme parte del consorcio de colaboración.

Diru-laguntzaren eskatzailatzat jo ahal izango da, erakunde liderrarekin batera, eskabidean hala adierazten denean. Onuradun izateko, 3.1 eta 3.2 oinarrietan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, 3.3 oinarrian jasotako salbuespenekin.

Podrá ser considerada solicitante de las subvenciones, conjuntamente con la entidad líder, cuando así se indique en la solicitud. Para ser considerada beneficiaria deberá cumplir los requisitos establecidos en las bases 3.1 y 3.2, con las excepciones recogidas en la base 3.3.

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Berezko nortasun juridikoa daukaten enpresak izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones las empresas con personalidad jurídica propia.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeei baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea

a) Tener su domicilio social y fiscal en el





Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

c) Hauetariko jarduera izatea: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza. Horretarako bere jardueretako bat gutxienez Eranskinean jasotako 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN) epigrafeen barruan egon behar du (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. BOEan argitaratua), 4.6.a) oinarrian aurreikusitako salbuespenean izan ezik. Enpresak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emanda egon beharko du jarduera horri dagokion epigrafean.

d) 5 eta 100 pertsona arteko langile edukitzea, lansaio osokoak urteko kopuru baliokideetan.

Langiletzat joko dira lan-kontratu baten bidez enpresari lotuta dauden pertsonak, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuta badaude.

Halaber, langiletzat joko dira lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta ez badaude ere, eta enpresan lan- edo lanbide-jarduera garatzen duten pertsonak, baldin eta, beren izaeragatik, ezin badira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon, Segurtasunaren Lege Orokorren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 305.2 artikulua b eta e

Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Tener al menos un centro productivo, o de alto valor añadido en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Desarrollar su actividad en los sectores de la Industria, Construcción, Transporte, Servicios conexos con la Industria, Turismo y Comercio al por mayor, de manera que alguna de sus actividades quede integrada dentro de los epígrafes de la C.N.A.E. 2009, -Clasificación Nacional de Actividades Económicas- (RD. 475/2007, de 13 de abril. Publicado en el «Boletín Oficial del Estado» número 102, de 28 de abril) recogidos en el Anexo, salvo en la excepcionalidad prevista en la base 4.6.a). La empresa deberá estar dada de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente a dicha actividad.

d) Tener una plantilla entre 5 y 100 personas, en equivalentes anuales a jornada completa.

Se considerarán pertenecientes a la plantilla las personas vinculadas a la empresa por un contrato laboral, incluidas en el Régimen General de la Seguridad Social.

También se considerarán integrantes de la plantilla las personas socias trabajadoras de cooperativas de trabajo asociado aun cuando no estuvieran incluidas en el Régimen General de la Seguridad Social, y las personas que desarrollan su actividad laboral o profesional en la empresa que, por su condición, no puedan estar dadas de alta en el Régimen General de la Seguridad Social conforme a lo recogido en las letras b y e del artículo 305.2 del Real Decreto





letretan jasotakoaren arabera.

Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social

Ez dira plantillakotzat joko atzerriko instalazioetan lan egiteko kontratatu diren langileak.

No se considerará perteneciente a la plantilla al personal contratado para trabajar en plantas en el extranjero.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioaren murrizketen kasuan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.

En el caso de reducciones de jornada por cuidado de hijos e hijas o de personas en situación de dependencia se podrán computar, a petición de la entidad solicitante, las jornadas de estas personas sin tener en cuenta la reducción.

e) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3 bis artikulua arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.

e) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean únicamente personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004) deberán cumplir los plazos de pago previstos en la citada Ley.

f) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere).

f) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de





eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu. Aurrekotik salbuetsita dago d) baldintza; hori eskabidea aurkezten den egunean bete beharko da. Aurrekotik salbuetsita ere badago 5/2005 Foru Arauaren 12.2.b artikuluan ezarritako debekua, salbu eta konkurtso-likidazioaren fasea ireki dela aitortu bada; hori eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eta emakida egiten den unera arte mantendu beharko baitira.

presentación de solicitudes, mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos. Se exceptúa de lo anterior el requisito d) que deberá cumplirse a fecha de presentación de solicitud. Se exceptúa de lo anterior, también, la prohibición establecida en el artículo 12.2.b de la Norma Foral 5/2005 salvo en el caso en que se haya declarado la apertura de la fase de liquidación concursal, que deberá cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse hasta el momento de la concesión.

3. Enpresak ez diren erakundeak edota aurreko a), b), c) eta d) baldintzak betetzen ez dituzten baina proiektuan parte hartzen duten erakundeak izango dira foru dekretu honen onuradunak, baldin eta guztiek egindako gastuak dirulaguntza jaso dezaketen oinarritzko gastu osoaren % 20 gainditzen ez badu.

3. Podrán ser consideradas también entidades beneficiarias aquellas que no sean empresas y/o que no cumplan los requisitos a), b), c) y d) anteriores siempre y cuando el gasto incurrido por el conjunto de las mismas, no supere el 20% del base total subvencionable.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

4. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las Mujeres (en adelante Ley 4/2005).

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren

b) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves,





uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluaren aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

c) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

d) Ondasun-erkidegoak.

e) Sozietate zibilak.

f) elkarteak, fundazioak, federazioak, partidu politikoak eta erlijio erakundeak.

g) Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela, laguntza hori berreskuratzeko agindu baten menpe dauden pertsonak edo erakundeak.

h) Sektore hauetakoren batean jarduerak egiten dituztenak: (i) arrantza eta akuikultura, (ii) nekazaritza-produktuen ekoizpen primarioa, eta (iii) nekazaritza-produktuak eraldatzea eta merkaturatzea, 1407/2013 (UE) Batzordearen Erregelamenduaren 1.1.c) artikuluan aurreikusitako kasuetan. Erregelamendu hori minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da. Debeku hau ez da aplikatuko 4.6.a oinarrian aurreikusitako salbuespenezko kasuetan.

i) Jarduera armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketaren arloan egiten dutenek, 14/2007 Legeak, 2007ko abenduaren 28koak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta

en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la persona o entidad beneficiaria.

3. La devolución de la subvención a instancia de la propia persona beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, que les será remitida según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, una vez solicitada la misma a través de la oficina virtual del departamento de promoción económica.

III. TITULUA

Dirulaguntzak emateko prozedura

13. oinarria. *Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak.*

1. Dirulaguntza-programa honetan parte hartu nahi duten pertsonak konpromisoa hartuko dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual>) dirulaguntza jasotzeko eskaera formalizatzeko, dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko,

TÍTULO III

Procedimiento de concesión

Base 13. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.*

1. Las personas que quieran acceder al presente programa de ayudas se comprometen a formalizar la petición de subvención, así como a enviar documentación, realizar las justificaciones, interponer los recursos, realizar las alegaciones, presentar las variaciones con respecto a expedientes ya abiertos y





errekurtsoak jartzeko, alegazioak egiteko, dagoeneko irekita dauden espedientei buruzko aldaketak aurkezteko eta edozein izapide egiteko. Izan ere, kontuan izanik erakundeon gaitasun ekonomiko eta teknikoa eta haien dedikazio profesionala, ulertu behar da bermaturik dutela behar diren bitarteko teknologikoak eskuratu eta erabiltzeko modua, 39/2015 Legearen 14. artikularekin bat etorrira.

2. Interneten aurkeztu behar dira eskaerak, «Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtuala» atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko egoitza elektronikoan.

3. Bulego birtualean sartzeko, bertan adierazten den indarreko araudiaren arabera onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da. Bitarteko horiei esker, eskaerak egin daitezke pertsona juridikoen ordezkari gisa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako B@kQ txartela erabili nahi izanez gero, jakinarazten da Ekonomia Sustatzeko Sailaren egoitzan eskura daitekeela (Orueta apezpikua 6, Bilbo).

4. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da pertsona hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan alta emanda egotea (erregistro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuan araututa dago). Egoera horretan ez badago, pertsona edo erakunde horrek inskripzio-eskabidea bete beharko du bulego birtualean, dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino

cualesquiera trámites a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica

(<http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual>), por entenderse que tienen garantizado el acceso y disponibilidad de los medios tecnológicos precisos por razón de su capacidad económica, técnica y dedicación profesional, de conformidad con el artículo 14 de la Ley 39/2015.

2. Las solicitudes se presentarán por Internet, en el apartado «oficina virtual de Promoción Económica» de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia contenida en la página web institucional.

3. Para el acceso a la oficina virtual podrá utilizarse cualquiera de los medios de identificación y firma electrónica admitidos según normativa en vigor que se señalan en la misma. Estos medios permiten realizar solicitudes en representación de personas jurídicas. Si se quisiera utilizar como medio de identificación y firma electrónica la tarjeta B@kQ, se informa que puede obtenerse en la sede del Departamento de Promoción Económica ubicada en la calle Obispo Orueta nº 6 de Bilbao.

4. Para la presentación de la solicitud será requisito que la persona figure dada de alta en el registro de entidades y personas físicas (REPPE) del Departamento de Promoción Económica, regulado mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 109/2016, de 14 de junio. En caso de no encontrarse en esta situación, la persona o entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción en la oficina virtual como paso previo a la tramitación de la





lehen.

5. Eskabideekin batera, hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, bulego birtualean dagoen agiriak eransteko sistema erabilita. Era berean, eskabide horietan eskatutako informazioa eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

6. Hona eskabideak aurkezteko epea: 2023ko martxoaren 13ko 8:30etatik 2023ko martxoaren 31ko 13:30era.

solicitud de la subvención.

5. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se indica en la base siguiente, utilizándose el sistema de anexo de documentación de la oficina virtual. Asimismo, deberá aportarse la información y declaraciones responsables solicitadas en dichas solicitudes.

6. El plazo para la presentación de solicitudes será desde las 8:30 horas del 13 de marzo de 2023 hasta las 13:30 horas del 31 de marzo de 2023.

14. oinarria. *Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa.*

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztutako eskabideak bulego birtualaren bidez bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak araberakoak izango dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita.

2. Laguntza-eskaera bat (1) aurkeztu ahal izango da eskatzaile bakoitzeko, proiektuaren erakunde lider gisa. Ez dago mugarik beste lankidetzak proiektu batzuetan parte hartzeko, baldin eta proiektu horietan erakundea buru ez bada.

3. Organo instrukzio-egileak erabakiko du lankidetzak halakotzat jo daitekeen ala ez foru dekretu honetan ezarrita dagoenaren arabera, eta jo ezin dela erabakiz gero, buru den erakundeari eskaria berriro egiteko eskatu ahal izango dio.

Base 14. *Documentación necesaria para la solicitud.*

1. Las solicitudes formalizadas a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica deberán ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en dicha oficina virtual de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015.

2. Se podrá presentar una (1) solicitud de ayuda por cada persona solicitante cuando actúa como líder del proyecto. No existe limitación para participar en otros proyectos en colaboración en los que la entidad no sea la líder del proyecto.

3. El órgano instructor apreciará si la colaboración puede calificarse como tal de acuerdo a lo establecido en el presente decreto foral y, en caso contrario, podrá solicitar a la entidad líder la reformulación de la solicitud.





4. Erakunde batek baimendutako gehieneko kopurua gainditzeko duen eskabide kopuru bat aurkezteko badu, organo instruktoreak eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio eskabideetako batzuei atzera egiteko, bere nahierara. Berariazko erantzunik jaso ezean, baimendutako gehieneko kopurua soilik hartuko da kontuan, eta organo instrukzio-egileak lehendabizi jasotako eskabideak baino ez ditu ebaluatuko, eta gainerako eskabideak automatikoki baztertuko dira.

5. Agiri administratibo eta tekniko hauek aurkeztu behar dira eskabideekin batera:

a) Eskabide telematikoa, 13. oinarrian ezarritakoaren arabera.

b) Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren datu-orria (ez erakunde liderrarena), Ekonomia Sustatzeko Sailaren webgunean eta bulegoetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

c) Ekonomia Sustatzeko Sailaren web gunean eta bulegoetan eskura daitekeen ereduaren arabera.

d) Akordio formala, proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitzean ordezkaritza-ahalorde nahikoa duten pertsonen izenpetua; proiektuaren garapen-fasea kontuan hartuta, akordio mota hauetakoren batean jasoko da: Lankidetzak-akordioa lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuetan edo asmo-akordioa lankidetzan identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasuna azterketetan.

4. Cuando una entidad presente un número de solicitudes superior al máximo permitido, el órgano instructor lo notificará a la solicitante, concediendo un plazo de 10 días para el desistimiento potestativo a algunas de las solicitudes. Si no se recibiere respuesta expresa se tomará en consideración únicamente el número máximo de solicitudes permitidas y el órgano instructor evaluará únicamente las solicitudes recibidas en primer lugar y el resto de solicitudes serán automáticamente inadmitidas.

5. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación administrativa y técnica:

a) Solicitud telemática conforme a lo que se especifica en la base 13.

b) Hoja de datos de cada entidad participante (no de la entidad líder), según modelo disponible en la web y en las oficinas del Departamento de Promoción Económica.

c) Memoria de solicitud, según modelo disponible en la web y en las oficinas del Departamento de Promoción Económica.

d) Acuerdo formal suscrito por personas con poder de representación suficiente de cada una de las entidades que desarrollan el proyecto que según la maduración del mismo se plasmará en uno de los siguientes tipos de acuerdo: acuerdo de colaboración, para los proyectos de innovación en colaboración o acuerdo de intenciones para los análisis de la viabilidad de oportunidades de negocio identificadas de manera





cooperativa

e) Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren eskaera egin aurreko bi hilabeteetako bateko Langile Izendun Zerrenda LIZ. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren kotizazio-oinarrien azken txostena ere (eskaera egin aurreko bi hilabeteetako bateko kotizazioa barne) erantsiko du. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat kalkulatzeko ahalbidetzen duten agiriak.

e) Relación Nominal de Trabajadores/as RNT de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de solicitud de cada entidad participante. En el caso de existir personas trabajadoras autónomas adscritas a la empresa se aportará además por cada persona el Informe de Bases de Cotización que incluya la cotización de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de solicitud. En el caso de personas adscritas a otros regímenes de cotización se aportará documentación que permita el cálculo de una base asimilada a la del régimen general de la Seguridad Social.

f) 15.000 euro edo gehiagoko (BEZik gabe) kanpoko gastuen eta inbertsioen kasuan, esleitutako kopuruak justifikatzen dituzten eskaintza, kontratu edo fakturen kopia.

f) Copia de las ofertas, contratos o facturas que justifiquen los importes asignados en el caso de los gastos externos e inversiones de importe superior o igual a 15.000 € (IVA no incluido).

g) Eskaera egiteko unean eginda dauden kanpoko gastu guztietarako fakturak eta horien banku ordainketen frogagiriak. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea.

g) Para aquellos gastos externos ya ejecutados en el momento de la solicitud, se deben presentar facturas y justificantes bancarios del abono de las mismas. No se admitirán pagos en efectivo.

h) Erakunde parte-hartzaile bakoitzak baldin badauzka, indarrean dauden ziurtapenak eta/edo planak, berdintasun, ingurumen, euskararen sustapen eta enpresa erantzukizun sozialekoak, bai eta erakunde publiko eskudunek emandako aintzatespenak eta diplomak ere.

h) En caso de que se dispongan, las certificaciones y/o planes medioambientales, de igualdad, de promoción del euskera y de Responsabilidad Social Empresarial en vigor, así como otro tipo de reconocimientos y diplomas emitidos por entidad pública competente al respecto, de cada entidad participante.

i) Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru

i) Ficha de la parte acreedora de cada entidad participante según modelo oficial





Aldundiko webgunean dagoen eredu ofiziala, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo dauden datuak aldatu nahi badira. Dokumentazio osoa dagoela jotzen den data zehazterakoan ez da kontuan hartuko hartzekodunaren fitxa, espedientearen ebazpena emateko ondorioetarako.

j) Bizkaiko Lurralde Historikokoak ez diren erakundeei edozein erakunderi Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakundearen erregistroan inskribatzeko eskatzen zaien dokumentazio guztia eskatu ahal izango zaie (106/2016 Foru Dekretua, ekainaren 14koa).

6. Proiektua baloratzeko ondokoak hartuko dira kontuan jasotako agiriak eta proiektuan parte hartuko duten enpresako pertsonekin egindako elkarriketan bildutako informazioa. Inguruabarrak (data, agerliarrak, eta abar) eta ondoreak, aurkeztu den proiektuari dagokionez, administrazio-espedientearen sartuko den agiri batean jasoko dira.

7.- Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoaren bidez eta/edo dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

disponible en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia, en el caso de que no consten los datos de domiciliación bancaria en la Diputación Foral de Bizkaia, o si se desea modificarlos. La ficha de parte acreedora no se tendrá en cuenta para determinar la fecha en que la documentación se considera completa a efectos de emitir resolución del expediente.

j) A todas las entidades de fuera del Territorio Histórico de Bizkaia se les podrá requerir toda la documentación que sea necesaria para su inscripción en el registro de entidades del Departamento de Promoción Económica (Decreto Foral 109/2016, de 14 de junio).

6. Para la valoración del proyecto se tendrá en cuenta la documentación recibida, así como el contraste de información realizado en una entrevista con las personas de la entidad implicadas en el proyecto. Se dejará constancia de las circunstancias (fechas, comparecientes...) y las consecuencias en relación con el proyecto presentado en un documento que se incorporará al expediente administrativo.

7.- El Departamento de Promoción Económica mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia y/o a través de los servicios de interoperabilidad correspondientes, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las personas y entidades interesadas requeridos para la tramitación administrativa de las solicitudes presentadas, sin perjuicio de los derechos reconocidos en los artículos 13, 28 y 53 la Ley 39/2015.





Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

Arrazoi teknikoak direla eta, ez bada posible informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik eskuratzea, Ekonomia Sustatzeko Saileko Berrikuntza Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

La solicitud de ayuda conllevará la autorización para obtener por otros medios otra información pertinente desde otras administraciones públicas que por causas técnicas no pueda ser obtenida a través de los servicios de interoperabilidad.

Si por causas técnicas no fuese posible obtener la información directamente de otras administraciones públicas, el Servicio de Innovación del Departamento de Promoción Económica podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

15. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

1. Eskabideak elektronikoki, estandarrak eta formatuak betetzen ez badituzte, termino guztiak betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Instrukzio-organoak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia bildu ahal izango du.

Base 15. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran electrónicamente, no cumplieran los estándares y formatos fijados, no se cumplimentaran en todos sus términos o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. El órgano instructor podrá recabar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.





16. oinarria *Dirulaguntza emateko prozedura.*

1. Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrak egingo dira.

2. Foru-dekretu honen ondorioetarako, honako hau jotzen da norgehiagoka prozeduratzat: dirulaguntzak emateko, aurkeztu diren eskabideak konparatzea, eta, aurretik ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera, lehentasun-hurrenkera ezartzea, erabilgarri dagoen kredituaren arabera, puntuazio handiena lortu dutenei dirulaguntzak adjudikatzeko.

Base 16 *Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo únicos.

2. Se entiende, a los efectos del presente decreto foral, como concurrencia competitiva el procedimiento por el que la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer un orden de prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración fijados, y adjudicar, dentro del crédito disponible, aquéllas que hayan obtenido mayor valoración.

17. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

1. Eskabideak irizpide eta azpi-irizpide hauen arabera baloratu dira eta ponderazio hau emango zaie:

a) Proiektuaren garrantzia partzuergoko enpreseentzat (15 puntu, gehienez)

1) Eragina partzuergoko enpresen negozio estrategia elementu zentraletan (10 puntu, gehienez).

2) Proiektuak ekartzen duen apustu maila partzuergoko enpresarentzat (5 puntu, gehienez).

Base 17. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

1. Las solicitudes se valorarán en función de los siguientes criterios y subcriterios y su ponderación:

a) Importancia del proyecto para las entidades del consorcio (hasta un máximo de 15 puntos)

1.º Afección a elementos centrales de las estrategias de negocio de las empresas consorciadas (hasta un máximo de 10 puntos).

2.º Nivel de apuesta que el proyecto significa para las empresas consorciadas (hasta un máximo de 5 puntos).





b) Proiektuaren berrikuntza maila (37 puntu, gehienez)

1) Negozio-aukera edo lankidetzaren proiektuaren berrikuntza-maila arte-egoerarekiko (20 puntu, gehienez).

2) Proiektuak erantzuna eman nahi dien merkatuko beharizan bete gabeak (12 puntu, gehienez).

3) Proiektua Euskadiko espezializazio adimenduneko RIS3 sektoreei lotuta dago (5 puntu, gehienez).

c) Lankidetzaren partzuergoa (30 puntu, gehienez)

1) Proiektua garatuko duen partzuergoaren konfigurazioa: dibertsitatea, osagarritasuna, oreka, konpromisoa eta partzuergoko kideen arteko independentzia gradua (15 puntu, gehienez).

2) Parte-hartzaile bakoitzaren profila eta erakunde bakoitzak bete behar dituen rola (8 puntu, gehienez).

3) Erakunde bakoitzak jarritako baliabideak eta kapitalak (ezagutza, denbora, baliabide materialak, erlazioak,...) (7 puntu, gehienez).

d) Aurkeztutako proiektuaren kalitatea (10 puntu, gehienez)

1) Proiektuaren helburu, adierazle eta mugari orokorren definizioaren argitasuna (4 puntu, gehienez).

b) Grado de innovación del proyecto (hasta un máximo de 37 puntos)

1.º Grado de innovación de la oportunidad de negocio o del proyecto colaborativo en relación con el estado del arte (hasta un máximo de 20 puntos).

2.º Necesidades de mercado insatisfechas a las que da respuesta el proyecto (hasta un máximo de 12 puntos).

3.º Proyecto relacionado con los sectores de especialización inteligente del País Vasco RIS3 (hasta un máximo de 5 puntos).

c) Consorcio de cooperación (hasta un máximo de 30 puntos)

1.º Configuración del consorcio que desarrollará el proyecto: diversidad, complementariedad, equilibrio, compromiso y grado de independencia entre los miembros del consorcio (hasta un máximo de 15 puntos).

2.º Perfil de cada participante y roles a desempeñar por cada organización (hasta un máximo de 8 puntos).

3.º Recursos y capitales aportados por cada organización (conocimiento, tiempo, recursos materiales, relaciones...) (hasta un máximo de 7 puntos).

d) Calidad del proyecto presentado (hasta un máximo de 10 puntos)

1.º Claridad en la definición de los objetivos, indicadores e hitos generales del proyecto (hasta un máximo de 4 puntos).





2) Proposatutako lan-planaren zehaztapena, kronograma, baliabide-esleipena, ebaluazio-eta jarraipen-sistema eta proiektua aurrekontuari egokitzea, egingarria izan dadin (3 puntu, gehienez).

3º) Lantaldea koordinatzeko eta ustekabeak kudeatzeko metodologia. Konfiantza sortzeko, itxaropenak eta mesfidantzak kudeatzeko eta balizko gatazkak eta ziurgabetasunak konpontzeko dinamikak (3 puntu, gehienez).

e) Enpresaren konpromiso soziala eta iraunkortasuna (3 puntu).

Irizpide honetan, kontuan hartuko da eskatzaileek ziurtagiriak eta /edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.

f) Genero-berdintasuneko ibilbidea (2 puntu, gehienez)

Irizpide honetan puntu 1 emango da partzuergoko erakunde bakoitzeko baldin eta erakundeak berdintasunaren arloko ziurtagiri edo bereizgarri ofizial bat badu erakunde mailan.

g) Gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (3 puntu, gehienez).

Irizpide honetan, kontuan hartuko dira proiektuan parte hartuko duten eskatzaileetako langileetako gizonen eta emakumeen kopurua eta proiektuan gizonek eta emakumeek duten erantzukizunen

2.º Detalle del plan de trabajo propuesto, cronograma, asignación de recursos, sistema de evaluación y seguimiento y adecuación al presupuesto que haga factible el proyecto (hasta un máximo de 3 puntos).

3.º Metodología de coordinación del equipo de trabajo y de gestión de imprevistos. Dinámicas para construcción de confianza, gestión de expectativas y recelos, resolución de posibles conflictos e incertidumbres (hasta un máximo de 3 puntos).

e) Compromiso social y sostenibilidad de la empresa (3 puntos).

En este criterio se tendrá en cuenta que las entidades solicitantes dispongan de certificaciones y/o planes en materia de sostenibilidad medioambiental, promoción del euskera y responsabilidad social corporativa.

f) Trayectoria en igualdad de género (hasta 2 puntos)

En este criterio se otorgarán 1 punto por cada entidad del consorcio que disponga de un certificado o distintivo de carácter oficial materia de igualdad a nivel de entidad.

g) Participación equilibrada de hombres y mujeres en el proyecto (hasta 3 puntos)

En este criterio se tendrá en cuenta el número de hombres y mujeres de la plantilla de las entidades solicitantes que participan en el proyecto y la distribución de responsabilidades. Se otorgará un punto si





banaketa. Puntu bat emango da emakumeek proiektuan parte hartzen dutenen % 50 gainditzen badute, eta bi puntu % 70 gainditzen badute. Puntu bat emango da proiektua emakumeek zuzentzen badute.

2. Irizpide horiek erabiliz organo instruktoreak aurreko ebaluazioa egingo du eta ebaluazio batzordeari bidaliko dio, horrek azken balorazioa dakarren ondorioen txostena egin dezan; hortik aterako da aurkeztutako proiektuen sailkapena.

3. Gutxienez 35 puntu eskuratu beharko dira, jarduerak edo proiektuak laguntza jaso ahal izan dezan.

4. Berdinketa gertatuz gero, a) irizpidean lortutako puntuazioa hartuko da kontuan. Berdinketak jarraitzen badu, b) irizpideko puntuazioa hartuko da kontuan. Eta berdinketak jarraitzen badu, eskabideen sarrera-ordena hartuko da kontuan.

18. oinarria. *Ebazpena.*

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, ebaluazio-batzordeak aztertu eta irizpena eman ondoren, organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo du, eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-agindua bidez ebatziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezatea edo ez ematea.

las mujeres superan el 50% de participantes en el proyecto y dos puntos si supera el 70%. Se otorgará un punto si el proyecto está liderado por mujeres.

2. Con estos criterios se llevará a cabo una evaluación preliminar por parte del órgano instructor, que remitirá a la comisión evaluadora para que ésta emita un informe de conclusiones con una valoración final, de la que se obtendrá la ordenación de los proyectos presentados.

3. Se deberá obtener una puntuación mínima de 35 puntos para poder obtener la condición de actividad o proyecto subvencionable.

4. En caso de empate se atenderá a la puntuación obtenida en el criterio a). Si persistiere el empate se atenderá a la puntuación en el criterio b). Si aún persistiere el empate se atenderá al orden de entrada de las solicitudes.

Base 18. *Resolución.*

1. Concluida la instrucción del expediente, previo estudio y dictamen de la comisión evaluadora, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución, que elevará a la persona titular de la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial. Ésta, a su vez, elevará la propuesta de resolución a la diputada foral de promoción económica, quien resolverá mediante la oportuna orden foral. En la resolución se acordará tanto el otorgamiento de las subvenciones, como la





2. Ebazpenean, emandako laguntzen, ezetsien eta eman ez diren laguntzen zerrenda jasoko da, eta, hala badagokio, horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da, aurreikusitako balorazio-irizpideen eta ezesteko eta ez emateko arrazoien arabera.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitzeko eta aplikatzeko foru-dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa. Halaber, onarturiko dirulaguntza emateko ebazpenean adieraziko da minimis erregelamenduari atxikitako laguntza dela, eta esplizituki adieraziko da dirulaguntza gordin baliokidearen zenbatekoa.

4. Eskaturiko dirulaguntza eman, ezetsi edo eman ez izana adierazten duen ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

5. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera

desestimación o su no concesión.

2. La resolución contendrá una relación ordenada de las ayudas concedidas, de las desestimadas y de las no concedidas, con indicación en su caso de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos y de los motivos de desestimación y no concesión.

3. En la resolución de otorgamiento podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el decreto foral o en la normativa contemplada en la convocatoria correspondiente. Asimismo, en la resolución de otorgamiento de la subvención concedida se indicará que se trata de una ayuda acogida al Reglamento de minimis y se indicará de manera explícita el importe de la subvención bruta equivalente.

4. La resolución por la que se proceda a la concesión, desestimación o no concesión de la subvención solicitada se notificará a las personas interesadas.

5. Notificada la resolución las personas beneficiarias dispondrán de un plazo de diez (10) días hábiles para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación alguna se entenderá tácitamente aceptada.

6. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis (6) meses contados desde la finalización del plazo para presentar solicitudes. Transcurrido este plazo sin





ezetsitzat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.

haberse notificado la resolución, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

19. oinarria. *Errekurtsoak.*

Base 19. *Recursos.*

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

1. La resolución agota la vía administrativa y, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 114, 123 y 124 de la Ley 39/2015, podrá la persona interesada interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral de promoción económica en el plazo de un (1) mes a contar desde el día siguiente a la notificación de la resolución.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean -txandaren arabera dagokiona-, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Bilbao que por turno corresponda, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la correspondiente notificación, en los términos contemplados por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3. Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

3. No será posible simultanear ambos recursos.

20. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

Base 20. *Renuncia a la subvención.*

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea (hurrenkeraren puntuazioaren arabera),

1. De acuerdo con el supuesto regulado en el artículo 48.3 del Decreto Foral 34/2010, en caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas solicitantes siguientes en orden de





baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin pertsona edo erakunde eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organismoak dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

3. Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) egun balioduneko izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera uko egiterik gertatzen bada, dirulaguntza emateko baldintzak ez direla bete joko da.

21. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua

puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las personas interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez (10) días hábiles. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

3. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la propuesta de subvención a la persona interesada. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

Base 21. *Modificación de la resolución de concesión.*

1. Las personas beneficiarias podrán solicitar a la diputada foral de promoción económica, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o





aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino hilabete (1) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahi zen interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketena, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros. Las solicitudes de modificación se deberán presentar con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha finalización del plazo para la realización de la actividad subvencionada.

2. La diputada foral de promoción económica podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la persona interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

3. Cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la persona beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

22. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Dirulaguntza eman den urte naturala amaitu

Base 22. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Antes del fin del primer trimestre posterior





ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Promoción Económica publicará en el “Boletín Oficial de Bizkaia” las subvenciones concedidas a los efectos de esta convocatoria pública con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida, finalidad o finalidades de la subvención, con expresión, en su caso, de los distintos programas o proyectos subvencionados. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

23. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizitatea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketaren zabalkunde publikorako egiten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute era honetan: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2023ko Elkarlanean Programaren barruan / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa de Elkarlanean 2023» Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa ere jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.

Base 23. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Las personas beneficiarias deberán dar publicidad al carácter público de la financiación de la actuación subvencionada mediante la mención de la ayuda recibida y la inclusión, en lugar visible, la inclusión de la expresión «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2023ko Elkarlanean Programaren barruan / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa Elkarlanean 2023» junto al logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia en todos los materiales, publicaciones o eventos para divulgación pública de las actuaciones subvencionadas.

24. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

Base 24. *Notificación electrónica.*





1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan agertuz egingo dira (<https://www.ebizkaia.eus>) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoak eskuragarri jartzeari buruzko abisua eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektroniko horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoaren abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan, eta ezetsizat jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar

1. Las notificaciones realizadas a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015.

2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://www.ebizkaia.eus>), de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden Foral de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Los avisos de puesta a disposición de las notificaciones electrónicas practicadas se remitirán a la dirección de correo electrónico aportada en la solicitud. Para ello, una vez cumplimentada la solicitud, por parte del órgano o unidad competente de oficio se dará de alta dicha dirección electrónica en el sistema de avisos de la mencionada sede electrónica para este procedimiento de subvenciones del catálogo de procedimientos de la Diputación Foral de Bizkaia. Estos avisos no tendrán, en ningún caso, efectos de notificación practicada y su falta no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida.

4. Las notificaciones se entenderán practicadas en el momento que se produzca el acceso a su contenido, y rechazadas





egun natural igarotzen direnean edukira sartzerik gertatu ez denean.

cuando transcurran diez días naturales desde la puesta a disposición de la notificación sin que se acceda a su contenido.

IV. TITULUA

Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

TÍTULO IV

Ejecución, justificación y control

25. oinarria. *Gauzatzeko epea.*

1. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2022eko urtarrilaren 1etik eta 2024ko ekainaren 30era arteko epean, biak barne, hasi eta amaitu beharko dira.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak gauzatzeko epea luzatu ahal izango du, hurrengo apartatuetan adierazitakoaren arabera.

3. Onuradunak gauzatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du, honako baldintza hauek betez gero:

a) Alegatutako arrazoia gertatu eta izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatu ahal izateko eskatu beharko da berehala, eta, nolanahi ere, gauzatzeko epea amaitu baino gutxienez hilabete bat (1) lehenago.

b) Gauzatzeko epea luzatzea eragin duen gerora sortutako arrazoia adierazi beharko da, ezin zaiona egotzi onuradunaren doloari, erruari edo zabarkeriari.

Base 25. *Plazo de ejecución.*

1. Las actividades o proyectos subvencionados deberán iniciarse y finalizarse en el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2022 y el 30 de junio de 2024, ambos inclusive.

2. La diputada foral de promoción económica podrá otorgar una ampliación del plazo de ejecución en los términos y de acuerdo con lo indicado en los apartados siguientes.

3. La persona beneficiaria podrá solicitar la ampliación del plazo de ejecución cumpliendo las siguientes condiciones:

a) Deberá solicitarse de manera inmediata a que se produzca la causa alegada y se pueda acreditar la demora sufrida o que pueda sufrirse y, en todo caso, con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha de finalización del plazo de ejecución.

b) Deberá indicarse la causa sobrevenida que motiva la ampliación del plazo de ejecución y que no puede ser imputable al dolo, culpa o negligencia de la persona





beneficiaria.

c) Ustekabeko kasua eta ezinbesteko kasua, halakorik gertatuz gero, kontuan hartuko dira eskatzen den luzapenari buruz ebazteko.

c) El caso fortuito y la fuerza mayor, de concurrir, serán factores que se tendrán en cuenta para resolver sobre la ampliación que se solicite.

d) Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: alegatutako arrazoia egiaztatzen duen dokumentazioa, izandako edo izan beharreko atzerapena egiaztatzen eta justifikatzen duen dokumentazioa, eta, ondorioz, eskatutako luzapen-epea.

d) La solicitud deberá venir acompañada de la documentación acreditativa de la causa alegada, de la documentación que acredite y justifique la demora sufrida o a sufrir y, en consecuencia, el plazo de ampliación solicitado.

e) Dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzuak jasotako eskaria ulertzeko egokitzat jotzen duen bestelako dokumentazioa eskatu ahalko du.

e) El Servicio que se encarga de la gestión de la subvención podrá requerir cualquier otra documentación que estime conveniente para la comprensión de la solicitud recibida.

f) Ez da baimenduko alegatutako eta egiaztatutako atzerapena baino gehiago, betiere luzapen horrek emandako dirulaguntzaren helburua betetzea ahalbidetzen badu eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.

f) No se otorgará una ampliación que vaya más allá de la demora alegada y acreditada y siempre que dicha ampliación permita cumplir la finalidad de la subvención concedida y no perjudique derechos de terceros.

4. Hauxe da gehienez ere egikaritze epearen luzapena: 9 hilabete.

4. La ampliación máxima del plazo de ejecución que se podrá otorgar es de 9 meses.

5. Eskatutako luzapena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete (1) da, eskaera bulego birtualean aurkezten denetik. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

5. El plazo máximo para resolver y notificar sobre la ampliación solicitada es de un (1) mes desde la presentación de la solicitud en la oficina virtual. Transcurrido el mismo sin haberse notificado resolución expresa se entenderá desestimada la petición.

26. oinarria. Justifikazio-epea.

Base 26. Plazo de justificación.

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari

1. Las personas beneficiarias deberán





aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen justifikazioa, “gauzatzeko epea” 25. oinarrian ezartzen den diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzeko epea bukatzen denetik hiru (3) hilabeteko epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.

presentar ante el órgano instructor la justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención, en un plazo de tres (3) meses a contar desde la finalización del plazo máximo para realización de la actividad o proyecto subvencionado, establecido en la base 25 “*plazo de ejecución*”, mediante la forma establecida en las presentes bases.

2. Hala ere, onuradunek modu boluntarioan aurkeztu ahalko dute azken justifikazioa horretarako ezarritako epea hasi aurretik.

2. No obstante, las personas beneficiarias podrán voluntariamente presentar la justificación final con anterioridad al inicio del plazo establecido para ello.

3. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, dirulaguntzaren azken justifikazioaz gainera, bitarteko justifikazio bakarra aurkeztu dezakete beren borondatez, laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko den eta 2024ko martxoaren 29a, barne, amaituko den epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.

3. Además de la justificación final de la subvención, las entidades beneficiarias de las ayudas podrán presentar voluntariamente una única justificación intermedia, en un plazo que se iniciará el día siguiente a la aceptación de la ayuda y finalizará el 29 de marzo de 2024, inclusive, mediante la forma establecida en las presentes bases.

4. Gauzatzeko epea luzatzea onartu bada, organo izapidegileari azken justifikazioa aurkezteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da. Epe hori zenbatzen hasiko da epea luzatzeko emakida ebazpenean hura egiteko ezarritako epea bukatzen denean.

4. En caso de haberse otorgado una ampliación del plazo de ejecución, el plazo para presentar la justificación final ante el órgano instructor será de tres (3) meses a contar desde la finalización del plazo establecido para su realización en la resolución de concesión de la ampliación de plazo.

5. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere haren erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik

5. La diputada foral de promoción económica podrá otorgar una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación final, que no exceda de la mitad del mismo y siempre que las circunstancias alegadas la aconsejen y con





egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolanahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago. Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

